

## XXVI. Topaketak



"Zuzendaritza, denontzako erronka"

Donostiako Miramar Jauregia  
2009ko maiatzaren 22 eta 23

## AURKIBIDEA

1. SARRERA
2. METODOLOGIA
3. ZUZENDARITZA GAIA BESTE TOPAKETETAN
4. ORAINGO EGOERA GAIARI DAGOKIONEZ
5. XXVI. TOPAKETETAKO LANA
6. ZUZENDARITZA INGURUAN EGINDAKO BESTE LANAK
7. PROPOSAMEN NAGUSIAK
8. AMAIERA GISA
9. ERANSKINAK
  1. Gaia garatzeko zenbait datu
  2. Aurreko Topaketetan azaldutakoa
  3. Prentsa oharra

## 1. SARRERA

SAREAN Elkarteak maiatzaren 22 eta 23an bere XXVI. Topaketak burutu ditu Donostiako Miramar Jauregian, "Zuzendaritza, denontzat erronka" izenburupean.

Eskola Publikoarekin erlazionatutako ehun pertsona inguru bildu ginen gaia aztertzeke eta proposamenak egiteke.

Sareanen "Zuzendaritza" gaia oso garrantzitsua da eta elkartearen sorreratik gure ahalegin nagusienak ikastetxeen antolakuntzan lagungarria izan daitekeena bultzatzen eta ahalbidetzen jarri ditugu. Atzera begiratzuz gero, gai honen inguruan egindako hainbat lan aurkitu ditzakegu:

- XVI. Topaketak 2000. urtean.
- XXVI. Topaketak 2004. urtean
- Euskadiko Eskola Kontseiluarekin lankidetzan:
  - ❖ "Zuzendaritzari buruzko azterlana" (2000)
  - ❖ Zuzendaritzaren inguruko Jardunaldiak (2001)
  - ❖ "Zuzendaritzari buruzko azterlan berria" (2009)
- Gironako Unibertsitatean didaktika arloko doktorea den Joan Teixidó jaunarekin kolaborazioa.
- Zuzendaritza Taldeen Formakuntzarako arduradunekin batera egindako "Zuzendaritza gida"
- BIHE Elkartearekin etengabeko harremana eta elkarlana.

Zergatik ba, hain jorratuta dagoen gaia berriro Topaketetara aztergai?

Lehenengo eta behin, gaia aztertzeke arrazoiak berdin mantentzen direlako, are gehiago urteak pasa ahala, ikastetxeetan Zuzendaritzan aritzeko hautagaiak gero eta eskasagoak direlako eta bigarrenez, aurten indarrean jarri den dekretu berriaren ondorioak aztertu eta kontuan hartzeke.

Gauden egoeran ezinbestekoa iruditzen zaigu ikastetxeen iritzia, daukaguna azaltzeke, eskaintzen digutena aztertzeke ekidin behar duguna detektatzeko, kezkatzen gaituena salatzeke eta nahi duguna ezagutarazteke.

Jakin badakigu gaia konplexua dela eta neurri askoren batuketa beharrezkoa izango dela konponketara heltzeke; lan honetan azaltzen diren iradokizunekin gure aportazioa egin nahi dugu.

## 2. METODOLOGIA

Txosten honetan azaltzen diren ideia eta proposamenak maiatzaren 22an egindako lanketan jaso baziren ere, aldezturik egindako lanaren ondorioa dira eta ikastetxeetatik bidalitako informazioa dute oinarri.

Gaia jorratzeko emandako urratsak:

1. Ikastetxeetara irakasle guztiei zuzendutako galdetegi bat bidali zen, zuzendaritzari buruz duten iritzia islatzeko. Emaitzak jasotzeko ikastetxe bakoitzaren batz bestekoa eskatu zen eta denboraz mugatuta, 25 lehen ikastetxeak hartu ziren lagin gisa.
2. Inkesta honen helburuak, ikastetxeetako datu errealak jasotzetik aparte irakasleek gaiarekiko duten inplikazioa bultzatzeko tresna eskuratzea, eta klaustroetako eztabaida erraztea izan ziren.
3. Gironako Unibertsitatean didaktika eta antolakuntzan doktorea den Joan Teixidó jaunaren hitzaldia. Honekin aditu baten ikuspuntua gehitu nahi izan genion gure lanari, lan-taldeen eztabaidetan sarritan lagungarri gertatzen baita.
4. Topaketetan partaideak hiru lan-taldetan banatu genituen ( 30 pertsona inguru bakoitzean). Sarreran banatutako dokumentazioan jardunaldiaren antolaketa zegoen:
  - Gaia garatzeko zenbait datu ( Eranskin 1)
  - Gidoia (Eranskin 2)
  - Puntu guztiak lantzen direla ziurtatzeko denboraren banaketa proposamena.
4. Talde nagusia partaide guztiekin osatzen da eta bere aurrean hiru talde txikietan egindako lana aurkeztu zen iradokizunak egiteko denbora emanez. Talde handiak jaso ziren proposamenak onartu zituen eta horietatik dira txosten honetan islatzen direnak. Proposamen horiek izango dira SAREAN Elkarteak bai Administrazio aurrean baita edozein forotan XXVI. Topaketen ondorio bezala aurkeztuko dituenak.

### 3. ZUZENDARITZA GAIA BESTE TOPAKETETAN

Sarreran esan bezala, Zuzendaritza gaia Elkartearen sorreratik aztertu da, batzutan jardunaldi berezietan, bestetan azterlanetan parte hartzen eta beti ikastetxearen eguneroko zereginen hariari jarraitzen.

Aurreko bi Topaketen proposamenak erkatuz gero, argi ikusten dugu 2000. urtetik 2004. era oinarrizko baldintzetan aldaketa nabarmenik ez zela gertatu eta ondorioz eskakizunak errepikatu zirela. Bien proposamenak batuz honela irudikatzen da Zuzendaritza Talde ideala ezaugarri eta betekizunetan:

- Gutxieneko egonkortasuna duen Taldea, ez urtero talde berria.
- Eskolako arlo pedagogikoa gidatzeko denbora nahikoa duena.
- Ikastetxearen antolakuntza egiteko gaitasuna duena.
- Berrikuntza bultzatzeko ilusioa transmititzen duena.
- Eskola Komunitateko kideen arteko harremanak ahalbidetzen dituena. Elkarrizketa eta hausnarketaren bultzatzailea.
- Arlo guzti hauetan formatuta.
- Pizgarri egokiekin konpentsatuta.
- Profesionaltasuna eta erabakiak hartzeko autonomia gehiago duen taldea.
- Antolakuntza plana zehaztuta duena.
- Zuzendaritza eskola osorako dela eta kolektiboen arteko harremanak zaindu eta bultzatu behar dituela argi duen taldea.
- Lan burokratiko gutxiago edukita arlo pedagogikora denbora gehiago dedikatzeko duena.
- Administrazioaren laguntza eta sinesgarritasuna duena.
- Beste eskoletako zuzendaritzekin harremanak bultzatzen dituena.

Ezaugarri guzti horiekin batera ezinbesteko baldintzak:

- Klaustrokideen inplikazioa
- Ebaluaketaren erabilpena etengabeko hobekuntzaren bidetik abiatzeko.

#### 4. ORAINGO EGOERA GAIARI DAGOKIONEZ

Aurten ikastetxeen Zuzendaritza Taldeak berritu behar izan dira eta estraineiko aldiz LOEren ezarritakoaren garapena suposatzen duen dekretua indarrean jarri da. (EHAA, 2009 /02 / 18) Dekretuak aurreko prozesuarekin konparatuta zenbait aldaketa ditu:

- Zuzendariak ez dira bozka bidez aukeratuko, merezimenduen arabera baizik, non faktore nagusia zuzendaritza-proiektua den (puntu guztien % 70).
- Aukeraketa ez du Eskola Kontseiluaren osoko bilkurak egingo, ordezkoko batzorde batek baizik. Aukeraketaz arduratuko den ordezkoko batzordea 5 lagunek osatuko dute: Eskola Kontseiluko 4k eta Ikuskaritzako 1ek.
- Aurrerantzean, 3 urtez aritu beharrean, 4 urtez ariko dira zuzendariak zuzendari lanetan.
- Hautagairik egon ezean, nahitaez zuzendari arituko dena izendatuko da. Nahitaezko izendapen hori, hasiera batean, urtebetekoa izango da. Behin-behineko izendapenaren indarraldia amaitu eta zuzendariaren postua berriz bete behar denean hautagairik ez badago, nahitaezko izendapena 3 urterako izango da.
- Dekretu berriak aukera ematen die ikastetxetik kanpoko pertsonen ikastetxeko zuzendari izateko, betiere, ikastetxean bertan zuzendarigairik aurkeztu ez bada.

Edonola ere, ezin da karguak aukeratzeko eredu berri batez hitz egin eta lehen bezala, ez dirudi arautegi honekin errealitatea kontuan hartzen denik, arreta handia jartzen du aukeraketan hautagai ugari egongo balitz bezala. Errealitatea oso bestelakoa da, hau da, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe gehienetan hautagairik ez dagoela ondoko taulan agertzen den bezala.

#### Zuzendarien hautagaitzak, 2009ko deia

Ikastetxe motak	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa			EAE		
	Ikast	Haut	(%)	Ikast	Haut	(%)	Ikast	Haut	(%)	Ikast	Haut	(%)
CEP-LHI	52	15	%29	173	51	%29	105	30	%29	330	96	%29
IES-BHI	17	5	%29	70	30	%43	55	14	%25	142	49	%34
IEFPS-	2	7	-	8	5	%63	9	8	%89	19	20	-
Guztira*	82	27	%33	274	103	%38	194	65	%34	550	165	%30

## 5. XXVI. TOPAKETETAKO LANA

Jardunaldi hauetan 90 pertsona inguruk hartu du parte eta eztabaida lana eta proposamenak hiru talde txikitatik sortu dira.

Aurreko Topaketetako lana eta proposamenak berrikusi dira eta zoritxarrez, 9 urtetan Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen Zuzendaritzaren egoeran ez dela aurrerapausu nabarmenik egin konprobatu dugu.

Talde txikietako proposamenak bateratu eta Talde Handian onartu dira. Hona hemen eztabaida puntu nagusiak eta egindako proposamenak:

### **1. Aukeraketa prozesua.**

Indarrean jarri berria den dekretuari kritikak egin zaizkio. Zuzendaritza Proiektuari garrantzia ematea ondo dago baina ezin da edonola egin eta denbora behar da; aurten ez da egon. Zuzendariari gehiegizko protagonismoa ematen dio eta gure ustez indartu behar dena Zuzendaritza Taldea da, kontzeptua eta errealitatea. Arazorik larriena hautagai falta da, hori denok dakigu eta aurrean emandako datuen arabera frogatzen da denbora joan ahala, egoera larriagoa bihurtzen ari dela, baina dekretuarekin batera ez da hautagaiak animatzeko inolako neurririk azaldu.

Taldeetan autokritika ere egin da. Klaustrokide garen aldetik, nahi dugun Zuzendaritza edukitzeko erantzukizuna badaukagula onartzen dugu, baina, bizitza erosoan izan nahi dugu eta Zuzendaritza Taldean sartzeak beste konpromisua suposatzen duela aitortzen dugu. Bestalde jakin badakigu gai hau konpontzeak gure inplikazioa eskatzen duela eta kanpotik ez dela inoiz errezeta "majikorik" etorriko.

Proposamenak:

- Beti Taldeari buruz hitz egitea, ez Zuzendariari buruz bakarrik. Zuzendaritza Taldeko kide guztiak dira garrantzitsuak batez ere, Ikasketa Buruaren figura indartzea beharrezkoa dela aipatu da.
- Zuzendaritza berriak izendatzeko prozesua bigarren hiruhilekoan landu eta amaitu.
- Aurkezten den Proiektuak Eskola Komunitatearena izan beharko luke ez zuzendariarena soilik. Puntu honetan legea aldatzea proposatzen da eta hau ezinezkoa balitz Eskola Komunitateko proiektua izateko bideak zehaztu.
- Proiektua egiteko denbora eta behar den aholkularitza eman behar digu Administrazioak.
- Zuzendaritza Taldeak gaur egun dituen lan baldintzak eta pizgarriak hobetzeko agindua lehenbailehen ateratzea.
- Hautagai bakarria dagoenean prozesua erraztu ahalik eta gehien.
- Hautagairik ez dagoenerako prozedura landu ikastetxeetan. Hautagaiak klaustrotik sortze aldera Ikuskariak klaustroa ezagutu behar du, eta klaustrokideekin gaia gidatu eta aztertu beharko luke.
- Zuzendaritza gaiarekiko klaustrokideen inplikazioa areagotu behar da.

Patxadaz egindako eztabaida eta egoeren azterketak sasoiz eta etorkizunari begira egin behar dira, ez azken momentuan. Gida bat edota aztertzeke metodoa izatea lagungarria izango da.

## **2. Zuzendaritza Taldearen lana**

Zuzendaritza Taldearen lana gero eta zailago eta konplexuagoa bihurtu dela iruditzen zaigu, gainera eskakizun burokratikoak areagotu dira. Hau, duda barik oztopo bat da hautagai gehiago lortzeko, inork ez baitu arazorik nahi eguneroko bizitzan. Bestalde badakigu ikastetxean beti Zuzendaritza egongo dela eta azken urteotan ohitu gara ikuskariaren izendapenetara.

XXVI. Topaketen partaideen ustetan ikastetxeetan bertan aurkitu beharko dugu irtenbidea nahi dugun Zuzendaritza edukitzeko, beti Administrazioak bere erantzukizunari heltzen badio.

Proposamenak:

- Zuzendaritza Taldeak bere lana ondo betetzeko behar adina denbora izatea. Ikastetxe handi eta Eskola Txikien beharrak lehenbailehen aztertzea.
- Administrazioetik laguntza gehiago jaso:
  - Aholkularitza
  - Laguntza eta inplikazioa arazoetan.
  - Ikastetxeari dagozkion gaietarako buruzko interlokuzioa.
  - Ikastetxeko beharrei erantzuteko baliabideak.
- Ikastetxeetan erantzukizunak banatzeko adostasuna lortu. Ez utzi zama guztia gutxi batzuen gainean. Irakasle gehienek inplikazioa lortzeko estrategiak garatzea.
- Ikastetxeetan partaidetzaren kontzeptua aztertu eta erabakiak hartu.
- Zuzendaritza Talde osoaren formazio sakona ahalbidetu arlo guztietan.
- Lanean Ikastetxe desberdinetako Zuzendaritzak elkartzeko guneak izatea: zonako bilerak, proiektu berdinen inguruko bilerak, Topaketak...
- Burokraziako tramiteak arintzeko bideak aztertu, garatu eta lehenbailehen aplikatu. Ikastetxeko gestiorako Administrazioarekiko lana errazteko programa informatiko ona beharrezkoa da.

## **3. Ikastetxearen gestio taldea**

Gaur egun ikastetxe bat kudeatzea zaila bada berez, zailtasun hori ikastetxearen tamainaren arabera handitzen da. Zuzendaritza Taldeari erreparatuz, ohitu gara ardura eta lanez gainezka ikusten eta "stressa" hitza gero eta maizago entzuten dugu. Gauzak horrela, badirudi karguak hartzeko gaitasuna eta lanerako grinatik aparte ausardia ere beharrezkoa dela.

Agian ikastetxeetan gestiorako dagoen taldea handitzeko unea heldu zaigu eta bai irakasleok bai Administrazioak beharretara egokitu behar dugu gure funtzionamendua eta baliabideak.

Proposamenak:

- Koordinatzaileak (ziklokoak, proiektuenak) gestio talde barruan kontsideratu eta horretarako:
  - Denbora eman
  - Formazioa
  - Zereginak eta ardurak zehaztu
  - Errekonozimendua
- Ikastetxeetako Koordinatzaileak aukeratzeko irizpide pedagogikoak zehaztu.
- Figura berriak sortzea:
  - Administrariak Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan.
  - Ikastetxeen tamaina edota eraikuntza kopuruaren arabera Euskal Eskola Publikoaren Legeak baimentzen dituen beste figuren eraketa aztertzea.
- Funtzionatzeko prozedura argiak klaustroan adostu, berriei azaldu eta epe jakin baten barruan berretsi.
- Ikastetxeko irakasle gehien onarpena izateko bideak jorratzea:
  - Ikastetxeko Proiektua garatzea denon partaidetzarekin.
  - Irakaslegoaren partaidetza lortzeko teknikak ezagutu eta aplikatzea.
  - Irakasle bakoitzaren lanaren garrantzia transmititu eta denon lana hobetzeko teknikak elkar trukatu.

#### ***4. Zuzendaritza Taldearen lana. Prestigio eta errekonozimendua***

Askotan entzuten da lan horri prestigio eta errekonozimendua eman behar zaiola baina segituan sortzen zaigu galdera, hori nola egin? Prestigio eta errekonozimendua lortzeko esparru desberdinetan Zuzendaritza Taldearen lana nola baloratzen den eta ematen zaion tratua kalitatea aztertu behar da:

- Zuzendaritza Taldean bertan egin behar dena:
  - Beren lanaren garrantziaz sinestu.
  - Lan hori burutzeko gaitasuna dutela sinestu.
  - Ikasteko gogoia izan.
  - Begirunezko tratua eman eta exigitu.
  - Kargua ilusioz hartu, alde positiboak azpimarratuz.
- Administrazioak egin behar duena:
  - Informazio argi eta arina eman.
  - Taldea begirunez tratatu.
  - Ikastetxeari dagozkion gaietan bere iritzia kontuan hartu.
  - Lan kopuruari egokitutako denbora eman.

- Proiektuak aurrera eramateko autonomia maila gehitu.
- Formazio egokia eskaini.
- Karguaren ezaugarrietara egokitutako pizgarriak eman.
- Ikastetxe barnean egin daitekeena:
  - Klaustrokide eta gurasoek laguntza eta konfidantza adierazi.
  - Arlo Pedagogikoaren gidaritza eramateko erreztasunak eman.
  - Kide eta gurasoek Taldea begirunez tratatu.
- Beste erakundeekin dituen harremanetan ( Udala, sindikatuak...)
  - Informazioa jaso.
  - Eskolari dagozkion gaien inguruan iritzia emateko aukera izan.
  - Zuzendaritza Taldeak egiten dituen aportazioak kontuan hartzen direla frogatzeko erantzunak bidali.
- *Gizartearekiko harremanetan.*  
 Administrazio, guraso eta kideek Zuzendaritza taldeari ematen dioten tratua gizartean islatzen da. Beraz, esparru hauek lantzea ezinbestekoa da.

### ***5. Zuzendaritza Taldeen formazioa***

Edozein kargu betetzeko ezinbestekoa ikusten da formatua izatea eta are gehiago azken urte hauetan, Ikastetxeetako Zuzendaritza lana hainbeste zaildu den unean. Batzutan Zuzendariari eskaintzen zaie baina Topaketetan parte hartu dugunok uste dugu formakuntza Zuzendaritza Talde osoarentzat ezezik koordinatzaileentzat ere beharrezkoa dela, kargu bakoitzari dagokion esparruan.

Formatua izateak ematen duen ziurtasuna lanaren kalitatean eta iraunkortasunean eragina du.

Proposamenak:

- Zuzendaritza Talde berri guztientzat (aurkeztu ala ez) lehen formazio sakona jasotzea kargua hartu baino lehenago. Liberazioarekin izan beharko luke.
- Ikasturtean zehar aholkularitza: Ikuskariak, Berritzeguneak, Elkartek...
- Mintegiak
- Gai bat sakonean aztertzeke ikastaro trinkoak.
- Ikastaroetan gai teoriko, praktiko eta dinamikoak tartekatu beti praktikotasuna indartuz.
- Esperientzia trukaketak egiteko uneak bilatu.
- Koordinatzaileentzako formazioa eskaini.
- Hasierako formazioan, Magisteritzan, Zuzendaritza lana ezagutzeko lehen urratsak eman.
- Zuzendaritzari buruzko masterrak edo postgrado kurtsoak antolatzea.

## ***6. Sarean elkartearen funtzioa***

Sarean Elkartearen bidez eskola mota desberdinak biltzeko, gai baten inguruan eztabaidatzeko eta esperientzien trukaketa konpartitzeko aukera ematen du. Hau guztiz baliagarria dela aipatu da norberaren lana hobetzeko Eskola Txikietakoek aipatu duten bezala, bakoitzaren bakardadetik irtetzeko.

Era berean Topaketetan egiten den lana goraiatu da erabiltzen den metodologiari esker partaide guztiek iritzia azaltzeko aukera daukatelako eta denon artean osatzen diren ideiak eta proposamenak Eskola Publikoaren iritzia osatzen dutelako. Iritzi hau behar den esparruetara zabaltzeko ere oso garrantzitsua ikusten da Sarean Elkartearen funtzioa.

Elkartearen lana oso baliagarria ikusten da eta partaideen ustez gehiago zabaltzea eta ezagutzera ematea merezi du.

Proposamenak:

- Unibertsitatetik ezagutarazi elkartea.
- Urtero ikasturte hasieran Sarean zer den azaltzeko ekintzak egin
- Praktiketako ikasleei ere Elkartea ezagutarazi

## 6. ZUZENDARITZAINGURUAN EGINDAKO BESTE LANAK

Ikasturte honetan Zuzendaritzarekin erlazionatutako beste lan batzuk egin dira Sarean Elkarteak:

- *Euskadiko Eskola Kontseiluaren koordinaziopean "Zuzendaritzari buruzko azterlan berria"*

Orain dela 9 urte argitaratu zen lehen azterlana eta orain gaurkotu da. Bietan Sarean Elkarteak kolaboratu du eta sortutako ondorioak beste erakundeekin batera bereganatzen ditu.

Azterlan osoa [www.sarean.net](http://www.sarean.net) web gunean ikus daiteke. Hona hemen ondorioak:

*Euskal ikastetxe publikoen zuzendaritza gaiak arazo bat izaten jarraitzen du 2009. urtean, eta horren sintoma deigarrienak hautagaien eskasia, lanpostu horietan iraunkortasun baxua eta gizarte eta profesional mailetan esker on gutxi dira. Honek guzti honek ikastetxeak eta hezkuntza-administrazioa haien helburu nagusienetako baten aurrean jartzen ditu datozen urteoi begira.*

*Egunotan, zuzendari-lanpostuak hornitzeko hautatze-prozesua martxan egonik, hasierako informazioen arabera, ikastetxeen bi herenetan ez da hautagairik egon, aurreko egoerak okerrera eginez. Bestetik, une honetan zuzendari-kargua betetzen dutenen %40ak bi urteko esperientzia du asko jota; portzentaje hau %60ra heltzen da ikasketa-buruen kasuan.*

*Estatu- eta autonomia-mailako legeriak, Euskadin 1993an Eskola Publikoaren Legean zehaztu zena eta berriki LOEren eraginez apur bat aldatzen dena, Administrazioa eta ikastetxeen arteko harremanen eredu bat ezartzen du. Honen arabera ikastetxeek autonomia dute erabakietan eta, printzipio honekin bat etorritik, ikastetxea zuzenduko duten pertsonak klaustrokideen artean aukeratzen dituzte. Hala ere, autonomia eredu hau garatzeko dago neurri handi batean, defizit gehien aurkezten duen arloan bereziki, langileen kudeaketan. Guzti horren ondorioz, zuzendaritza karguak betetzeko prozedura ere autonomiaren eredutik aldenitu egiten da, eta ikastetxe gehienetan Administrazioa izango da nahitaez esleitu dituen.*

*Baldintza horietan, oso zaila izaten da zuzendaritzaren jarduna eraginkorra izatea. Nolanahi ere, azterlan honek ondorioztatzen duenez, antolakuntza-aspektu batzuk hobera egin dute azken hamarkadan: zuzendaritza-taldearen jarduna gero eta pedagogiatik hurbilago eta burokrasiatik urrunago dago; era berean, irakasleek familiekin elkarlanean aritzea eta ikasleen parte-hartzea bultzatzen dute, eta proiektu berriak garatzen dituzte. Aldiz, martxan dauden inizatibei koherentzia eman beharko liekeen planifikazio arloan gero eta gabezia nabarmenagoak agertzen dira; gabezia hori antolakuntzarako eta zuzendaritza-taldeari zein irakasleei dagokien koordinaziorako denbora gehiago eskatzean azaltzen da.*

*Egoera honetan, azterlana bultzatzen dugun 4 erakundeok, bakoitza bere ikuspuntu partikularretik abiatuta, hezkuntza-kalitatearen eta ikastetxeen*

*antolakuntzaren hobekuntzan inplikaturik gaudelarik, gure kezka adierazten dugu eta uste dugu ikastetxeen zuzendaritza-arazoari aurre egin behar zaiola.*

*Epe laburrera, ikasturte hau amaitu aurretik, Ikuskaritzari dagokio 2009-10 ikasturtean zuzendari-lanpostua beteko dutenak izendatzea, ikastetxe gehienetan. Momentu honetan, nahiz eta ezer ere ez eduki izendatu berriei ordainetan eskaintzeko, bidezkoa da ikastetxeek planteatzen dituzten proposamenak kontuan izatea, proposamen hauek dauden kasuetan. Ikuskaritzaren oraingo esku-hartzeak 2009-10 ikasturtean burutu beharko den hautaketa izan beharko du ikuspuntuan, hautagaiak proposatzeko orduan klaustroen ardura azpimarratuz, hala nola, deialdi horretako izendapen guztiek hiru ikasturteko luzapena izango baitute, 2012-13 ikasturtea amaitu arte, bai borondatezko hautagai-aurkezpenaren bidez nola derrigorrezko izendapenez egindakoek.*

*Ildo horretan, gure ustez, Hezkuntza Administrazioak datorren ikasturtea aprobetxatu behar du zuzendaritza funtzioa arautzeko, zuzendaritzan aritzea erakargarriago eta profesionalki adituago izan dadin. Asmo horrekin, ondoko neurri hauek proposatzen ditugu:*

- 1. Eskola-zuzendaritza erakargarriago egin dezan mota ezberdinetako pizgarrien politika arautzea. Gaurko egunean zuzendaritza-karguek jasotzen dituzten diru-pizgarriak ez datoz bat dagokien erantzukizunarekin eta ez dute konpentsatzen karguen zailtasuna nahiz ardura, Estatuko baxuenen artean kokatzen direlarik. Era berean, kargu hauei esleitzen zaien irakaskuntza orduetatik kanpoko liberazioa gehitzea aztertu beharreko kontua da.*
- 2. Eskola-zuzendaritzen eta Administrazioaren arteko harreman-estatusa hobetu behar da, unitate eta zerbitzu anitzekin komunikatzeko garaian lehentasuna emanaz, aldian aldiro informazio-bilerak eginez eta zuzendari-nahiz ikastetxe-elkarteen rola indartuz.*
- 3. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan administrazio-langileak jartzea. Duela hamarkada bat Administrazio Kudeaketarako Arduraduna (AKA) lanpostua sortu zen hainbat ikastetxetan, irakasle-plantilaren kargura. Irtenbide hori, behin-behinekoa izanik, ez da aski ikastetxeetako beharrak asetzeko; ondorioz, zuzendaritza-taldeek, beren funtzio espezifikokoak gauzatu beharrean, denboraren parte handi bat erabili behar dute kualifikazio handirik behar ez duen zeregin horietan.*
- 4. Prestakuntza-plana garatzea, jardunean ari diren zuzendaritza-talde guztiei zabaldua, beraien kompetentzia-mailak hobetze aldera hainbat esparrutan: planifikazioan, antolakuntzan, koordinazioan, ebaluazioan eta harremanen arloan. Plan hau formakuntza-modalitate ezberdinez osatuta egongo litzateke: ikastaro trinkoak eduki praktikoeekin, aholkularitza eta esperientzien trukeak. Honen bidez, egun sakabanaturik dauden proiektuak bilduko dituzten ikastetxeko proiektu integralak sustatuko dira, ondoko bi ardatz nagusiekin:*

- *Ikaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuen ikuspegi berria, oinarrizko hezkuntza-kompetentziak lantzea xede izango duena.*
- *Ebaluazioa, ikastetxeen aurrerabidea sustatuko duena hobekuntza-planen bidez.*

*5. Ikastetxeetako baliabideei buruzko politika lantzea, alderdi hauek kontuan izango dituen:*

- *Ikasleen ezaugarri sozioekonomiko eta kulturalak, ekitatearen printzipioari jarraituz.*
- *Ikastetxeko hezkuntza- eta curriculum-proiektua, antolakuntzan, kudeaketan eta hobekuntza pedagogikoan bere autonomia garatzeko bideratuta eta, era berean, ikasleen hezkuntza-arretarako irakasleen inplikazioa bermatzen duena.*

*Administrazioak irakasleen lanaldia arautuko du, haiek eskolak eman eta, aldi berean, beste eginkizunak nahikotasunez gauzatu ahal ditzaten, hala nola: prestakuntza eta gainerako irakasleekin elkarlana, ikasleen tutoretza eta familiekiko harremana.*

*Era berean, Administrazioak ikaskuntzarako aplikazio informatikoak eskaini behar ditu, hala nola administrazio-kudeaketarako aplikazio informatiko integrala, hau guzti hau, zuzendaritza-lanaren eraginkortasun handiagoa lortzearen eta irakasleen berrikuntza metodologikorako.*

*6. Hezkuntza Ikuskaritzak ikastetxeei aholkuak eman eta ikastetxeen jarduna ebaluatzeko dituen eginkizunak garatzea. Bestetik, zuzendaritza-taldeen aholkularitzan Berritzeguneen ekimenak bateratzea.*

*Azkenik, azterlan hau gauzatzeaz arduratu garen erakundeok, aintzatetsi nahi dugu zuzendaritza-taldeek egiten duten lan garrantzitsua, eta irakasle-klaustroei eskatu nahi diegu zuzendaritzarik kompetenteenak aukeratzeko ardura bere gain har dezatela.*

*Gure aldetik, erakunde bakoitzak bere esparruan, zuzendaritza-taldeein eta ikastetxeein laguntza eskaintzeko konpromisoa hartzen dugu. Era beran, goian biltzen diren proposamenak martxan jartzea bultzatuko dugu.*

- *Ikastetxeen informazio*

## **E.A.Eko IKASTETXE PUBLIKOETAKO ZUZENDARITZA AUKERATZEKO PROZESUA - 2009ko MAIATZA**

### *LANAREN ZERGATIA:*

Lan honi ekiteko hiru arrazoi nagusi aipatuko ditugu:

- Atera berri den dekretuak aldaketa eragin duen ala ez jakitea.
- Ikastetxeetan eman den prozesua ezagutzea.
- Emaidza kuantitatibo eta kualitatiboak jasotzea.

### *METODOLOGIA:*

- Telefono deiak
- Elkarrizketa pertsonalak
- Lanerako fitxa

### *LANERAKO FITXA:*

Jaso diren datuak ondoko fitxan agertzen dira:



## ZUZENDARITZA AUKERATZEKO DEKRETUA: GALDETEGIA

Zuzendaritza aurkeztu da Ikastetxean dekretuan agertzen den bezala (Zuzendaritza proiektuarekin)?

EZ

BAI

ZENBAT HAUTAGAI

IKUSKARIAK IZANDATUKO DU

AURRETIKO AKORDIOA IKASTETXEAN

AZALPENA:

---

---

☞ ZENBAT URTE (HORRELA BADA) ZERAMAN AURKEZTU DEN ZUZENDARIAK ZUZENDARITZA LANETAN?

☞ GAIA KLAUSTROAN AZTERTU DA?      EZER EZ      GUTXI      NAHIKOA

☞ AURKEZTU DEN PROIEKTUA KLAUSTROARI AZALDU AL ZAI O?      BAI      EZ

☞ BI KANDIDATURA AURKEZTU IZAN BALIRA, LEHIATUKO ZENUKEEN?      BAI      EZ

☞ KLAUSTROAK /IRAKASLEEK/GURASOEK DEKRETUARI IKUSTEN DIZKIOTEN ALDE ONAK/TXARRAK (AZPIMARRAGARRIENAK):

---


☞ DEKRETUA HOBETZEKO IRADOKIZUNAK:

---




# E.A.Ako EMAITZAK

## HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA




### gipuzkoa

■ IKASTETXEAK  
■ HAUTAGAITZAK




### bizkaia




### araba

■ IKASTETXEAK  
■ HAUTAGAITZAK




## GAIA KLAUSTROAN AZTERTUA AL DA?




## HERRIAK-HIRIBURUAK


### GASTEIZEN




# ARABAKO HERRIETAN



## LEHIAKORTASUNA IKASTETXEETAN




## zuzendaritzan aintzintasuna ARABAN




HAUTAGAITZA EZ DAGOENEAN, NOLA OSATUKO DUTE ZUZENDARITZA TALDEA?

## ZUZENDARITZA TALDEAK



ZURE IKASTETXEAN BI HAUTAGAITZA  
AURKEZTU IZAN BALIRA, LEHIA HORRETAN  
PARTE HARTUKKO ZENUKE?



## HAUTETSIEN IRITZIA

- Ez da ezer berririk eman. Zeudenak jarraitzeko prest zeudela eta kitto!
- Ez da ezagutzen ikastetxeetako errealitatea.
- Klaustroan ezin zuen beste inork aurkeztu, finko gutxi gaudelako.
- Inor ez zegoela prest eta geundenok jarraitzea erabaki dugu.
- Zuzendaritzarako proiektua klaustroan aurkeztuta, kortxoan jarrita edota ikastetxeko sarean eskegita ez du inork komentariarik egin (oraindik!)
- Oso denbora gutxi egon da gaia behar bezala tratatzeko.


### Beste ikastetxeetako iritziak

- Epe motza proiektua aurkezteko.
- Ondo ikusten da dekretua.
- Jende asko ez du ikusten bere burua zuzendaritzan.
- Klaustroan akordia badago 2 urtez behin aldatzeko (2)
- Erabaki genuen ez aurkeztea eta txandatako eskemarekin jarraituko dugu.
- Bi urte nahiko dela pentsatzen dugu.
- Jendeak ez du zuzendaria izan nahi. Ardura gehiegi.
- Ondo saritua egon beharko litzateke: diru gehiago/urte sabatiko/...
- Nahiago dute "el profesional".
- Provisionalidad alta (>50%).

- Jubilaciones a corto plazo, reduce la formación del equipo.
- Cargo ingrato.
- No estamos bien considerados.
- Ez dago babesik.
- Comenta el decreto en el claustro, no hay discusión, nadie quiere ser. Se deja en manos de inspección.
- Finko gutxi.
- Inor ez duelako nahi.
- Ez da inolako eztabaidarik egon.
- Dificultad para completar el grupo de dirección.
- No todo el mundo está preparado.
- Pasatu direnak erreta daude.
- Oso lan konplexua delako: orokorrean ez dute erantzukizunik hartu nahi.



## EAE: HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAN



- *Irakasleei pasatutako galdetegia*

## GALDEKETAREN EMAITZAK

<b>IKASTETXEAK</b>				<b>25</b>	
<b>ARABA</b>	<b>2</b>	<b>BIZKAIA</b>	<b>10</b>	<b>GIPUZKOA</b>	<b>13</b>

<b>IKASTETXEAK EREDUKA SAILKATUTA</b>									
<b>D</b>	15	<b>B</b>	0	<b>A</b>	0	<b>B-D</b>	4	<b>A-D</b>	3

<b>IKASTETXEAK LERROKA SAILKATUTA</b>									
<b>ESKOLA TXIKIAK</b>	2	<b>LERRO1</b>	4	<b>LERRO2</b>	11	<b>3LERRO</b>	7	<b>4LERRO</b>	1

<b>ZUZENDARITZA BERRIA</b>			
<b>AURKEZTU DA</b>	6	<b>IKUSKARITZAK</b>	12
		<b>BARNE AKORDIOA</b>	8
		<b>BARNE AKORDIORIK EZ</b>	4

Bataz beste klaustroetako % 59ak erantzun du.

## A.- Zergatik ez da erakargarria egiten Zuzendaritza lana ?

1. <b>Lan zama</b> handia dagoelako	3,95	2. <b>Ardura eta stress</b> handia dagoelako	4,3
3. Gutxi ordaintzen delako	2,65	4. Zuzendaritzako inplikazioak, beste irakasleekiko harremana kaltetu dezakeelako	2,9
5. Ikastetxeko guraso, irakasle edo ikasleek sortzen dituzten <b>arazoak kudeatzea zaila eta gogorra</b> delako	4,05	6. Lan berriak beldurra ematen duelako.	3,15
7. Administrazioaren laguntza eta babes falta sumatzen delako	3,5	8. <b>Formazio eta gaitasun falta</b> sumatzen delako	3,7

## B.- Zerk egingo luke erakargarriagoa Zuzendaritza lana?

1. Pizgarri ekonomiko handiagoak	3,3	2. Zuzendaritzan 4-8 urte pasa ondoren, ikasturte bat sabatikoak.	3,65
3. Proiektu baten inguruan Klaustroko gehiengo baten eta gurasoen <b>lankidetzeta eta inplikazioa</b> izatea.	4,1	4. Zuzendaritza Taldeko kide kopurua handitzea.	3,1
